

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko urtarrilak 24

Usurbil, 12. Zenbakia



**ETXEKO TXIKIEN
TANBOR HOTSAK**



HILDAKOAK



1996-01-12
M^a Isabel Alkorta Beloki
85 urte.
Zubieta



1996-01-17
Baleriano Sagardia
Elizondo
100 urte.
Kaleberri

JAIOTZAK

Nekane Larrañaga Pesquera
(96-12-23)
Bizkarra kalea

Miguel Blazquez Tolosa
(97-01-12)
Galtzara-gaina

EZKONTZAK

Luis Miguel Rivas Campa
(Puntapax kalea)
eta

Maria Jesus Alvarez Martin
(Puntapax kalea)
(1997-01-10)

EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGIA


ASTEGUNETAN						ASTEBURUTAN		
Donostia	Usurbil	Zarauztz	Zarauztz	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Zarauztz
07.10	07.35	07.55	07.40	07.00	07.25	07.30	07.55	08.15
07.40	08.05	08.25	07.10 *	07.20	07.45	08.30	08.55	09.15
08.00	08.25	08.45	07.15	07.35	08.00	09.30	09.55	10.15
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30	10.30	10.55	11.15
09.00	09.25	09.35 *	08.15	08.35	09.00	11.30	11.55	12.15
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	12.30	12.55	13.15
10.40	11.05	11.25	09.15 *	09.25	09.50	13.30	13.55	14.15
11.05	11.30	11.40 *	09.45	10.05	10.30	14.30	14.55	15.15
11.40	12.05	12.25	10.20	10.30	10.55	15.30	15.55	16.15
12.40	13.05	13.25	10.40	11.05	11.30	16.30	16.55	17.15
13.05	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30	17.30	17.55	18.15
13.40	14.05	14.25	12.20 *	12.30	12.55	18.30	18.55	18.15
14.40	15.05	15.25	12.45	13.05	13.30	19.30	19.55	19.15
15.00	15.25	15.35 *	13.45	14.05	14.30	20.30	20.55	20.15
15.40	16.05	16.25	14.25 *	14.35	15.00	21.30	21.55	21.15
16.40	17.05	17.25	14.45	15.05	15.30	22.30	22.55	22.15
17.05	17.30	17.40 *	15.45	16.05	16.30			
17.40	18.05	18.25	16.25 *	16.35	17.00	Zarauztz	Usurbil	Donostia
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30	07.00	07.10	07.35
19.40	20.05	20.25	17.45	18.05	18.30	07.45	08.05	08.30
20.00	20.25	20.35 *	18.25	18.35	19.00	08.45	09.05	09.30
20.30	20.55	21.15	18.45	19.05	19.30	09.45	10.05	10.30
21.40	22.05	22.25	19.45	20.05	20.30	10.45	11.05	11.30
22.00	22.25	22.45	20.45	21.05	21.30	11.45	12.05	12.30
			21.15	21.35	20.00	12.45	13.05	13.30
						13.45	14.05	14.30
						14.45	15.05	15.30
						15.45	16.05	16.30
						16.45	17.05	17.30
						17.45	18.05	18.30
						18.45	19.05	19.30
						19.45	20.05	20.30
						20.45	21.05	21.30
						21.45	22.05	22.30

*Orioraino bakarrik

*Orietik iritetzen da



Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Agerialdeko ikastetxea 36 38 85
- Oiardo kiroldegia 37 24 98
- Zumarte musika eskola 37 15 94
- Etumeta euskaltegia 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea egoitza 37 32 28
- Gure Elkarte egoitza 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren informazioa 47 09 76
- **Noaua!** aldizkaria 36 03 21



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Dagoeneko 285 usurbildar bazkide ditu Noaua!-k
Zu ere egin zaitez bazkide!



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL
(Gipuzkoa) Tlf. eta faxa (943)
36 03 21.

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar,
Ines Kamino, Leire Atxega,
Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Begoña Zubiria,
Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfonso
Vidal eta Nieves Aranburu.

Administrazioa: Arantxa
Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino. **Erredakzio**

Kontseilua: Olatz Altuna,
Garikoitz Udabe, Jose Jabier
Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz,
Mertxe Olaizola.

Maketazioa: Susana

Martin. **Argazkia:** Joxe
Antonio Labaien, Juan Luis
Izeta. **Informatika:** Pili Lizaso.

Banaketa: Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.

Tirada: 2.000 ale. **Sukaldaria:**
Joxe Mari Sarasola

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esamen
eta iritziaren erantzunkizunik.



Zorioneko azterketak

Aitor Egileta

Ikaslea

Urtarrila bukatzen ari dela eta laister ditugu ihauteriak gure artean. Edonork umore pixka batekin ondo pasatzeko aukera izango du jai hauetan, batez ere ikasleek. Izan ere, beti esan ohi da ikasleak direla horrelako festak gehien apro- betxatzen dituztenak.

Baina bada tartean elementu garrantzitsu bat lehen esanda- ko guztiak hankaz gora uzten dituen, izan ere otsaila uniber- tsitateko ikasleentzat hilabete latza izaten da denok horren- beste maite ditugun azterketak direla medio.

Azterketen helburua ikasleak kurtsu horretan ikasi duena neurtzea dela suposatzen da. Helburu hau ez da lortzen, ordea, izan ere kurtsuan zehar batere ikasi ez duen pertsona batek irakasgaia gaindi dezake txuleta batzuren laguntzarekin, bitartean, urtean zehar ikasi eta ikasi aritu den lagunak gainditu gabe geratzeko arris- kua izango du egun horietan jasaten den presioa dela eta.

Izan ere hamabost-hogei egu- neko tarte motzean gai guztiei buruzko azterketak egin behar izaten dira, astean bi edo hiru azterketatik gora izanez. Irakasleak ez dira egun haue-

tan tontakeriatan ibiltzen, azterketan gutxien espero dena ere galdetu baitezakete.

Gainera hau gutxi izango balitz, egun hauetarako bukatu behar izaten dira irakasleek bidaltzen dituzten lanak edo praktikak. Hauek ere, luze eta astunak izaten dira denbora faltan ibili ezkeru.

Eta azkenik, ezin bukatu, etxe- ko eta kaleko giroa sartu gabe. Alde batetik etxeako gutxi ikasten duzula esan eta esan, eta beste aldetik lagunak etxe- ra deika kalera irten zaitezten. Azterketarako ikasteko duzuna, etxeako presioa, kaleko presioa eta hainbat eta hainbat fakto- rek (hauen artean horrenbeste txoratzen gaituen telebista) egun hauek gorrotatzera bul- tzatzen gaituzte.

Eta zer egin dezakegu honen aurrean? Ikasleak aztertu ahal izateko urte osoko lanetan oinarritzen diren beste metodo berriago batzuk badira, baina zoritxarrez, plangintza hauek ez dute batere indarririk oraindik Euskal Herrian.

Bueno ba, espero dugu beste batzuk gai honetan guk baino, eta orain arte pasa direnak baino, zorte hobea izatea.

**TABERNA
JATETXEA**



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL

MAHUKA



GAZTE DENDA

**Orain, neguko
merkealdia**

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

P A T R I

JATETXEA

**Eguneko bazkariak
eta afariak**

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

ETXEBESTE KALEA PEATONALA BAI ALA EZ?

Azkeneko **NOAUA!**ren alean irakurri dut zenbait herritarrek **Nievesi** agertu dioten kexa, alegia, Udarregiren monolitoa inguratzen duten harriak. Monolitoaren inguruan kotxeak aparkatuta egoten zirenez, Udarregiren 100. urteurrena antolatzen ibili zen batzordeak monolitoaren ingurua babesteko eskatu zion Udaletxeari. Zerbitzu Batzordean gaia aztertu

ondoren arazoari irtenbidea eman genion. Agian ez zen egokiena, baina bai errazena eta merkeena.

Denok dakigunez, herriaren kaxko zaharrea gauza bitxia gertatzen da. Alegia irazu kalea peatonala dugula eta Etxebeste kalea, aldiz, ez. Dagoeneko frontoiaren estalki zaharra kentzen hasi dira eta obra honetan frontoi ingurua

ere urbanizatu egingo da. Nere ustez, obrak amaitzen direnean, inguruneak Etxebeste kalea peatonala izatea eskatuko du. Horrela bada, harri hauek alperrik egongo lirateke. Hala ere, "HERORREK ESAN"en egiteko ez litzateke galdera txarra izango. Alegia, Etxebeste kalea peatonala bai ala ez?

JOSE LUIS ARRASTOA

xirrikitutik



1977ko urtarrilaren 17an legeztatu zen ikurriña, orain dela 20 urte. Ordukoak ditugu irudiok: Andres Bruño alkate zelarik ospatu zen Usurbilen legeztapena.

Plenoan idatzi bat irakurri ondoren eskegi zen ikurriña udaletxe-ko balkoian. Antton Aranburu eta Joxe Domingo Aizpurua herriko bertsolariek ere hainbat bertso bota zituzten. Herritarrek, festaren barnean, ikurriñari zin egin zioten banan-banan.



TABERNA
TRAGOXRRE

**BAZKARIAK
 ETA AFARIAK**

Santuenea 23
 Tlf. 36 27 34

**GALARRA
 GARRAIO**

* LUR ONGARRIAK
 * ZABOR BILKETA
 * ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

NOAUA

Itzapuzdegia
MISTOA
*Solarium, depilazioa,
 makilajea eta manikura*

Aritzeta 2 - 2 1.A
 Telefonoa: 36 19 51



AITOR ALKORTA ETXEBERRIA

1981eko uztailaren 1ean jaio zen Egioleta baserrian eta hiru semeetatik zaharrena da. OHOk ikasketak Udaregi ikastolan egin ondoren Urrietara joan zen LH egitera. Hala ere, aurten ikasketak utzi eta baserriko lanetan hasi da. Hemendik aurrera Egioletako sagardotegira bazoazte behin baino gehiagotan ikusiko duzue Aitor.



Lan asko ematen al du baserriak?

Bai, nahikoa. neguan udaran baino lan gutxiago izaten da, hala ere beti egoten da lanen bat.

Zer dela eta utzi zenituen ikasketak?

Ikasteko gogorik ez nuelako. Ez nintzen ikasle ona eta nahiago izan nuen uztea.

Eta orain gustora etxean.

Lana gustora ez du inork egiten eta baserrian lan egin behar da.

Azken hilabeteetan sagardoarekin arituko zineten.

Gehienbat bai. Sagardotegia irekitzeko prestatzen aritu gara eta sagardoa egiten ere bai. 24.000 litro egin ditugu aurten, gehienbat etxeko sagarrarekin.

Orain arte zenbat sagardo edan duzu?

Gutxi, ez naiz sagardoazale porrokatua. Bestelako irudia ematen badut ere nahiago dut beste zeozer edan.

Gose haundirik ez duzu pasa zuk orain arte.

Ez, jan ondo jaten dut. Edozer janari dut gustoko. Hori bai haragia jartzen badidate hobeto, baina arraina jarrita ere ez dut platerean utziko. Horretan ez dut akatsik.

Arraunean zein da zure talderik gogokoena?

San Pedro. Txiki-txikitatik izan naiz San Pedrokoa. Ama hangoa dut eta hortik etorriko zait more kolorearekiko dudan zaletasuna.

Etxean hiru semeak eta ama Pasai San Pedroren aldekoak gara, eta aita berriz Orioren aldekoa.

San Pedron arraunean ere ibilia zara ezta?

Bai, 11-12 urterekin hasi nintzen. Osabak eraman ninduen. Pasaian lagun batzuk zituen, eta

hauek balio nuela esan eta arraunean hasi nintzen.

Eta orain?

Orain jadanik ez naiz ibiltzen, joan den urtean utzi nuen. Arrauna oso gogorra da. Txapelketa batzuetan parte hartu genuen, baina zeharo gaizki ibiltzen ginen. Badirudi arraunean indarra edukitzea nahikoa dela, eta hori ez da horrela. Teknika oso garrantzitsua da.

Sokatiran emaitza hobek izan zenituzten?

Bai horixe. 6. eta 8. mailan Euskadiko eskolarteko txapelkunak izan ginen Udaregi ikastolarekin, 1993 eta 1995ean. Aurretik Gipuzkoako txapelketan ere aurrea gelditu ginen. Bi urte haietan ez genuen tirada bat bera ere galdu.

Nola hasi zineten sokatiran?

Futboleant, eskubaloian, saskibaloian, sokatiran...jokatzeko aukera eman ziguten eta guk, haundienak, sokatira aukeratu genuen. Josu Arruti, Agerreazpi, Urko Manterola, Xabier Murua, Jon Olaizola, Oskar... ibiltzen ginen Inaxio eta Txominekin entrenatzen.

Noiz entrenatzen zenuten?


Jolasgaraian. Soka poste bati lotu eta ari tiraka entrenatzen ginen. Jolasgaraietatik kanpo inoiz ez genuen entrenatu.

Egioleta hain urrun egonda, nola etortzen zara Usurbila?

Gaur egun moto txiki bat dut Usurbila joan eta etxera etortzeko. Orain arte bizikletaz ibiltzen nintzen. Parranda egin ondoren bizikletan joaten nintzen etxera, batzuetan goizean goiz asko gainera. Hasieran beldurra pasatzen nuen baina gero ohitu egin nintzen. Orain berriz, hamar minututan etxean naiz.

Pintxo eta bokata
goxo-goxoak

Eguzkitza



Igandetan ganba-ziri mundialak!

**TABERNA
JATETXEA**



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL

TXOKOALDE



**Iñaki
Labaka**

Gabonak hotz samarrak izan ondoren giroa asko epeldu da. Eguzkiak gogoz berotu duenez egun zoragarriak izan ditugu etxetik ateratzeko. **Auzoko jende asko**, batez ere jubilatua, **paseatzen** ibiltzen da honelako eguraldiarekin, bai ibiltzea osasungarria delako, baita denbora sobran dutelako ere.

Gehienek erribera aldeko bidea aukeratzen dute paseatzeko, **Txokoaldetik Santuene aldera bueltatxo** eginez. Hala ere bide hau **egoera nahiko txarrean** aurkitzen da.



Euria egitean **lokatzeta eta putzuak** berehala sortzen dira. Kexa ugari jaso ditut bide honen egoera penagarria dela eta. Nonbait bidea konpontzeko garaia iritsi dela uste dute. Kontutan hartu udalak bide hau zirkuitu batean sartuta duela, atseden hartzeko eserleku eta guzti.

Azkenik, **angula sasoi aurre-ra doa**. **Errege ondorengo egunetan urte osoko harrapaketa onenak** egin dituzte. Hori bai, denak arrastrean. Bazterretik nahiz eta gogo haundiz jardun ezer ere ez. Aditu dugunez, **Gaztelukoak Orio aldean** gau batean **hamar kilo** atera zituen.

KALEBERRI



**Ines
Kamino**

Lehenik eta behin, eta **L**ahaztu aurretik **kexa batekin** natorkizue. Orain dela hila-bete batzuk amaitu zituzten Kaleberrin bidea asfaltatzeko lanak. **Aparkatzeko lekuak** ere jarri zituzten, baina hauek **kotxeak banatzeko marrarik gabe**. Gauzak egiten hasiz gero hutsik gabe amaitzea ez da txarra izaten.

Obrekin hasi eta obrekin jarraitu. Izan ere **frontoiko es-talki berria egiteko lanak hasi zituzten**, eta jadanik **metalezko hesiak** jarri dituzte **frontoia-ren inguruan**. **Iraza kalean oso pasabide estua** utzi dute. Bi ilaratan joateko nahiko lan izaten da. Semaforoa jartzea ez litzateke gaizki etorriko.

Frontoia aipatu dudanez, ihauteriak etorri zaizkit burura. Non jarriko da Usurbilgo zirkoa aurtent? Ez jakin. Baina ihauteriak ospatuko ditugula ziur egon, eta zirkoa osatu ere bai. Izan ere, **otsailaren 8an egingo den ihauteri festan Usurbil zirkoa bihurtuko da**. Jadanik erropak preparatzen hasi zaitezket.

Bukatzeko, **Iraza kalean Txiribogako Berreartzenea etxea txukuntzen dihardute** atze aldetik. Hasieran **Paris etxea** izan zen, ondoren **Motzaneko Paris Berri** etxea eta orain beste hau txukuntzeari ekin diote.



AGINAGA



**Iratxe
Begiristain**

Bide kontuekin natorkizue Boraingoan. Karretera jeneralean norabidez aldatzeko **errotanda egin bazuten ere honek ez ditu konpondu Aginagako gabeziak**.


Hasteko, **Aginagan kotxez errepidera** irten nahi duen edonork **tentu haundiz** ibili behar du. Nahiz eta gehieneko abiadura 50 kilometro ordukoa izan kotxeak azkarrago pasatzen baitira. Baina arriskua ez da abiadura bakarrik, **errepide alboetan dauden koskak** ere zerikusi haundia dute. Koska hauek kotxeak errepidera azkar ateratzea **oztopatzen dute**, mantxo-mantxo atera behar izaten delako.



Bestalde, **Aginagako kaxkoti** gora, **baserrietara joateko bidearen egoera ere penagarria da**. Ibiliaren ibiliz gastatuta dago eta zuloak nonnahi topa ditzakezu. Todoterrenoak dituztenak, hor nonbait, baina kotxez joan behar dutenentzat ez da batere erosoa bide hau. Konpontzea ere...

ejiran

ATXEGALDE



**Amagoia
Mujika**

Tanbor hotsa nagusi izan genuen joan den **urtarrilaren 17an Udarregi ikastolan**. OHoko 1.mailatik 6. maila arteko haurrek sukaldari txapela nahiz mantala jantzi eta tanborrari etengabe eragin zioten orduerdiz. Lastima eguraldia. Patio haundian egin behar zuten saioa, baina euria zela eta barnean aritu ziren.

Ezin utzi **Atxegalderi** dagokion tarte obretaz hitzegin gabe. Izan ere, **Aginagara bidean, Atxegalde**tik irten eta bigarren bihurgunean, **Kaparotz parean, hormigoizko hesia jarri**



dute. Lanean hari ziren bitartean semaforoa jarri zuten, karril bat itxita egon zelarik.

Gaia erabat aldatuz, **zorionak Atxegaldeko Ibai Arrietari**. Bera izan da **Euskaltegiak atera zuen aldizkariko lehiaketako irabazlea**. 12 urteko atxegalde tar honek azkar ezagutu zuen **Arantxa Iribar** zela lehiaketan agertzen zen irakaslea. Beraz, hori asmatzearen truke **Kirolaken 5000 pezetako erosketa** egin ahal izango du. **Zorionak Ibai**.

URDAIAGA



**Leire
Atxega**

Hilaren 10ean, ostirala, **Hustekabeko zurrumurrua** zabaldu zen Urdaiagan. Arratsalde partean, **Santos Gilisastikoa** hil ote zenaren berria zabaldu zen gure auzoan. Aurrez bagenekien erite-txean zegoela, baina bizitzeari utzi ote zionaren berriak asko harritu zuen jendea. Zorionez, **Urdaiagan** zabaldutako berri txarra ez zen egia. **Santos** aurrera jarraitzeko moduan da eta **Noaua!**-ren ale berri hau ateratzerako etxean izatea espero dugu.



Berrikuntzak ere baditugu **Urdaiagan**. Zenbait etxe berri-tzen ari dira momentu honetan. **San Estebanen**, elizaren aurrean **Oa Goia** erabat berri-tzen ari dira azken hilabeteotan. Goitik behera berri-tzen ari dira. **Berraiartza Goienan** ere obretan ari dira.

Ehiztariak ere ez dira gelditu azken egun hauetan. Tiro hotsa etengabea izan da. Zerbait ehizatuko balute...



KALEZAR



**Begoña
Zubiria**

Kalezarko eraikuntza baten kegoera negargarriaren berri eman behar dut ale honetan. **Udarregi ikastolak** hainbat urtetan **eskolaurreko**



haurrak eduki zituen **eraikuntza, goikoa, egoera oso txarrean dago**. **Kalezartik** gora bazoazte botoiozue begiradaxo bat. **Kalezarko** gazteak biltzen garen lekua ez hainbeste, baina txirindulariek entrenatzeko erabiltzen zuten txabolaren **kristalak hautsita eta teilatua erdi erorian** dago.

ZUBIETA



**Nere
Amenabar**

Urtarrileko azken igandeak ematen du zeresanik **Zubietan**. **Donostiako Nazioarteko krossak jende ugari ekartzen du Zubietako hipodromora**. Kotxea hara, kotxea hona, ezohizko mugimendua antzematen dugu auzokook. Aurten ere **Zubietako hipodromoa** betebete egongo dela ziur egon, lokatzartean korrikalariak ikusi nahian.

H erorrek esan



Maitane Zinkunegi

Olarriondo

Askotan ikasten duzu eta gero ez zara ezertaz gogoratzen, alferrik egiten dituzu azterketak. Orain ez dut ikasten, baina lehen beti azkeneko egunean ikasten nuen, aurreko gauean gehienetan. Egia esan, inoiz ez dut eduki ikasteko zaletasunik.



Aiert Goia

Zubieta

Ez dakit ba. Dakidana da ikasi nuenean orduntxe egoten nintzela urdurien, eta ez nuenean ikasi berriz, lasai. Galtzeko askorik ez nuenez kasu horretan...



Jaione Leibar

Atxegalde


Niretzat ez. Asko sufritzen duzulako. Hala ere, ni nahiko lasaia naiz, ez naiz oso urduri jartzen. Ikasteko nahia-go izaten dut arratsalde partea, eta goizean berriz azken errepassoa ematen diot. "Txuletak" berriz, ez ditut erabiltzen.



Labrit Zabala

Bizkarra

Ez. Zeren batzuetan oso urduri jartzen zara eta dena pikutara joaten da. Nik oso gaizki pasatzen dut azterketetan, oso urduria naiz. Ikasteko garaian goiza nahiago dut, eta batzuetan arratsaldez ere bai. Txuletak ere noizikan behin ondo etortzen dira.



Aitor Ikutza

Kalezar

Ez. Zeren nahi-koa duzu azterketa egunean urduri jartzea ikasturte guztia hankaz gora botatzeko. Nik behintzat oso gaizki pasatzen nuen, oso urduri jartzen nintzen. Gainera, nahiko baldarra nintzen "txuletak" egiteko, eta horregatik ez nituen erabiltzen.


Azterketak justuak al dira ikasitakoa neurtzeko? Noiz ikasten duzu? "Txuletarik" egiten al duzu?



Mainer Añorga

Txokoalde

Niretzat azterketa kontua oso gaizki dago. Zeren material guztia ikasten duzu, eta azterketa egin ondoren dena ahaztu egiten zaizu. Oso urduri jartzen naiz gainera. Ikasi berriz, arratsaldez edo gauez hobeto, hala ere, ez ditut gau osoak ikasten pasatzen, jende asko egiten duen bezala. "Txuletak" berriz, ez ditut asko erabiltzen, baina noiz edo noiz eskuan zerbait idatzi eta horrelakoak egin izan ditut, ondo etortzen dira.



Jon Arriaga

Eguzkitza

Ez. Behin ikasi eta gero, ahaztu egiten delako. Hobe da egunero-ko lanak egin eta saiatzea eta hauengatik neurtzea zer ikasi duzun. Zeren azterketa baterako asko saiatu eta gero dena ahaztea ere... Arratsaldez eta goizez ikasten dut hobeto. Tarteka "txuleta" batzuk egiten ditut: erloju azpian papera gorde... eta horrelako batzuk, baina normalean hobe izaten da ikastea, eta hori egiten dut.



Asier Arriaga

Kaleberri

Ez dute ezertarako balio, niri ikastea ez baltzait inoiz gustatu. Beno, matematika bai, eta batzuetan ikasten ere jartzen nintzen. "Txuleta" asko erabili izan ditut: adibidez, beso batetik besteraino hari bat pasa jertse azpitik; alde batean klip bat eta bestean "txuleta". Klipetik tira egin ezker, "txuleta" barrura sartzen zen. Izan ere, maisua ez zen gutaz asko fidatzen eta eskuak igozteko esaten zigun. Baina eskuak gora jartzean, papera jertsearen mahukan gordezen zen.

UDALA EUSKAL TXOKOAK PRESTATZEN ARI DA HAURRENTZAT

Kontzejuko paper eta erabakien artean murgildu gara oraingoan. Udaletxean, eguna joan eta eguna etorri, bilera eta akten artean gauza asko erabakitzen da. Urtea hasi berri dugun honetan, aurrekontuak prestatzen nahiko lan dago. Baina bitartean gauza gehiago ere mugitzen ari dira.

Liburutegi-artxiborako proiektua, adibidez, aurrera doa. Dokumentu eta idazkiz betetako artxibo bat bada udaletxean. Baina orain arte batere antolatu gabe egon da. Gela txukundu eta dokumentuak klasifikatzeko premia ederra zegoen. Eta hemendik aurrera, **Maria Angeles Errastik** ekingo dio lan honi. Horregatik, udal liburutegian bere ordezkari bat aukeratzeko hautaketak egiten ari dira momentu honetan. Hemendik denbora gutxi barru jakingo dugu nor izango den liburuen zainzaile berria.

Udaletxeko hormetatik kanpo ere berrikuntzak badira. Nabariena, **frontoiko estalki berriaren** lanak. Estalkiarekin batera, Irazu eta Etxebeste kaleko **adokinak** kentzekoak ziren hasieran. Baina, badirudi, adokinak ez dituztela kenduko. Beraz, horretan gastatzekoa zen dirua, ezkerreko paretarpeatu eta txukuntzeko erabiliko da azkenean.

Kaleak aipatzen hasita, azkenaldi honetan udaletxeko **kale-garbitzaileen makina** koxkor hori herriko kaleetan ez dabilela konturatu al zarete? Ez, ez dabil, ba. Garbitasuneko makina hondatu egin zen. Bitartean, garbitzaileak, eskuz moldatu behar dute. 8-9 urte zituen makinak eta bere

onenak emanda zegoen, antza denez. Konpontzeko aurrekontua eskatu ondoren, sei milioi inguruko kostua omen du. Berri bat erostea adina, ia-ia. Asmo horrekin dabil udaletxea, baina hori ere ez da hain erraza. Erosterakoan lehiaketara atera behar da asmoa, eta horrekin gauzak bi edo hiru hilabetez luzatzen dira. Horregatik, bitartean beste bat alokatzeko asmotan dabilza.

Euskal txokoak herriko haurrentzat

Udalak, herrian euskararen erabilpena normalizatzeko plangintza bat daroma aurrera. Horren barruan, gauza desberdinak antolatu ohi ditu. Oraingoan proiektu berri bat martxan jartzekoa da: familiantan euskara erabiltzeko aukerarik ez duten haurrentzat **euskal txokoak**.

Euskara Batzordearen ekimenez sortu baldin bada ere, herriko ikastetxeetako irakasleek ere parte hartu dute proiektuaren finkapenean.

Euskal txokoak ikasleei eskolaz kanpo eskaintzen zaien ekintza da. Bere helburua eus-

kararen erabilpena bultzatzea da. Jarduera hauetan euskara erabiltzea oso lagungarri da haurrentzat, batez ere etxean euskaraz hitzegiteko aukerarik ez dutentzat.

Guztira 40 hurrek eman dute izena: 27k Kaleberrin eta 13k Santuenean. Oraingoan 6-11 urte bitartekoak hasiko dira, taldeka antolatuta: 6-7 urtekoak 11 dira Kaleberrin, 8koak 9, eta 9-11 urtekoak 7. Talde bakoitzak begirale bat dauka. Santuenean, berriz, adin gutti-tako ikasleak talde berean egongo dira bi monitorerekin. Talde bakoitzak astean ordu t'erdiko bi saio izango ditu.

Negu parte honetan 6-11 urte bitarteko haurrekin hasiko da **euskal txoko**etako programa hau. Aste Santuaren ondoren, ordea, txikiagoekin hasteko asmoa dago.

Begirale hauen lana haur hauek euskaraz hitz egin dezaten motibatzea izango da. Gurasoek ere, txoko horietarako gonbitea luzatuta daukatzue. Urtarrilaren 27an, arratsaldeko 5etan, udaletxeko aretoan.

Ainhoa Azpiroz



Euskal txokoetan euskara erabiliz ondo pasatzeko aukera izango da.

6000 BIZTANLE? 5000 GERO ETA GERTUAGO

Usurbilen ia 6000 pertsona bizi dira. Orain dela urte batzuk honelako esaldiak entzuten genituen herrian biztanleriaz hitzegiterakoan. Baina gaur egungo errealitatea bestelakoa da. Azken bost urteetan, urtez-urte populazioa piskanaka-piskanaka jeisten doa. Batzuetan heriotzak jaiotzak baina gehiago izan direlako, besteetan herritik kanpora jende ugari joan delako... 5000 biztanle izatera iritsi daiteke Usurbil urte batzuren buruan.

Gaur egun **5265** biztanle bizi dira Usurbilen, horixe da **zuzenbidezko biztanleria**. 1996. urtean jasotako datuen arabera, hoietatik 5189 herrian bizi dira, eta gainerantzeko 76ak nahiz eta Usurbildarrak izan, kanpontan daude. **Izatezko biztanleria**, ordea, **5377**koa da. Usurbilen bertan bizi direnei (5189), pasadizozkoak ziren beste 188 gehitzen zaizkio.

Azken urteetan Usurbilgo biztanleriaren bilakaeraren taula aztertzean, **gero eta gutxiago garela ikusi dezakegu**. 1987 urtetik 1996ra bitartean 319 pertsona gutxiago bizi dira Usurbilen, 163 emakumezko eta 156 gizonezko. Baina den-





Usurbilgo biztanle kopurua beheruntz doa azken urteetan. Udarregi ikastolan eta Ageri Alden gero eta haur gutxiago dagoela aspaldi ohartu ziren.

boran atzera egiten badugu urrun gelditzen den 5800-5900 biztanle zeuden garai hura. Kontutan hartzeko datu bat: 1970. urtean orain baino 284 pertsona gehiago bizi ziren Usurbilen.

Joandakoak etorkinak baino gehiago

Zer dela eta biztanleriaren beherakada hau? Hildakoak jaiotakoak baino gutxiago dira. 1990etik 1996ra bitartean jaiotzen kopurua hildakoena

baino haundiago izan da, 1994. urtean alderantzizkoa gertatu bazen ere. Zazpi urte hauetan 280 haur jaiotakoak 224 izan dira. Beraz, populazioaren beherakada honetan jendearen joan-etorriek garrantzi handia dute. Kanpora jende asko joaten da bizitzera, azken urte hauetan jende asko bere jaioterrira itzuli baita. Etortzen direnak, berriz, ez dira asko izaten. 1994. urtean adibidez, 110 pertsona joaneta 79 etorri



1996ko ABENDUAN USURBILGO LANGABEZI DATUAK I.N.E.M-en ARABERA			
	Guztira	Gizonak	Emakumeak
20 urtez azpikoak	10	4	6
20 urteik 24ra	55	22	33
25 urteik 29ra	58	25	33
30 urteik 34ra	41	15	26
35 urteik 39ra	26	10	16
40 urteik 44ra	24	9	15
45 urteik 49ra	11	4	7
50 urteik 54ra	18	11	7
55 urteik 59ra	10	8	2
59 urteik gora	2	0	2
Guztira	255	108	147

1995ko ABENDUAN USURBILGO LANGABEZI DATUAK I.N.E.M-en ARABERA			
	Guztira	Gizonak	Emakumeak
20 urtez azpikoak	4	4	0
20 urteik 24ra	70	32	38
25 urteik 29ra	72	33	39
30 urteik 34ra	47	22	25
35 urteik 39ra	20	7	13
40 urteik 44ra	24	9	15
45 urteik 49ra	13	5	8
50 urteik 54ra	16	9	7
55 urteik 59ra	14	10	4
59 urteik gora	3	1	2
Guztira	132	151	283

ziren. Kopuru hauek azken urteotan sarritan errepikatu dira. Horra bada, Usurbilgo populazioa jeistearren arrazoi nagusia: joaten direnak etortzen direnak baino gehiago dira. Eta ez Usurbilen bakarrik, Euskal Herrian orokorrean gautzen ari den fenomeno da.

Askotan esaldi hauen entzun edo irakurtzen dugu komunikabideetan: munduan emakumezkoen kopurua gizonetakoena baino haundiagoa da. Baina usurbilen ez da hori gertatzen. Harritzekoa bada ere **gizonetako emakumezkoen kopurua gaingiditzen dute**, 2706 gizonetako 2559 emakumezkoen ondoan. Hau ez da oraingo kontua. Azken urteetako datuak ikusten badituzu azkar oharretako zara aldaketarik ez dela egon azken hamarkada honetan.

Ezkontzei dagokionez 1996an azken urteetan baino usurbildar gutxiago ezkondu dira. Iaz 37 ezkondu ziren, 25 emakume eta 12 gizonetako. Kopuru hau oso baxua da aurreko urteetako kopuruarekin alderatzen badugu. 1993an, adibidez, 76 usurbildar ezkondu ziren, 32 gizonetako eta 24 emakumezko.

Langabezia beherantz



5265 biztanle inguru zituen beraz Usurbilek 1996. urte amaieran. Hauetatik 255 langabezian zeuden I.N.E.M-ek emandako datuen arabera. 1995eko **abenduan** 283 ziren langabezian zeudenak; 1996ko **apirilean** kopurua igo egin zen 292ra. **Uztailean** nabarmenki egin zuen behera langabeziak, 262 pertsona zeudelarik lanik gabe. Eta urtearen, azken sei hilabetean

255 pertsonetan gelditu zen langabetuen kopurua. Hala ere I.N.E.M-ek emandako datuak ez dira guztiz egiazkoak. Izan ere lan bila dabilen guztiak ez dute bertan izena ematen. Honez gain, beste gizatalde garrantzitsu ba ere langabezi datu hauetatik kanpo gelditzen dira, etxeke andreak adibidez.

Istripu ugari azken urteetan

N.634 errepidearen Usurbilgo zatian, 1993tik 1996ra bitartean, **662 istripu** gertatu dira. Hauen ondorioz, **48 zauritu** eta **13 hildako** izan dira. Datu kezkarri hauek jaso ondoren, udaletxeak idatzi bat bidaliko du Eusko Jaurlaritzara eta Diputaziora errepide honetan neurriak hartzeko eskatuz.

Josu Aranberri



INTSUMISIOA SEILUEN BIDEZ ZABAL DEZAKEZU

Artez euskara zerbitzuak intsumisioa azabaltzeko, ezagutarazteko eta bultzatzeko seilu lagungarri batzuk kale-ratzen ditu. **Balio komertzialik ez dute**, hau da, horiekin soilik ezin dira kartak eta postalak bidali. Hala ere, ohiko seiluaren aldamenean jar daitezke. I. Bilduma honetan sei seilu mota daude, intsumisioa gaiari lotutako marrazkiak dituztelarik. 200 pezetatan lor daitezke guztiak. Horretarako **Artezera** zuzentzea nahikoa da. Bertako helbidea hauexez duzue: Artez, Belostikale, 6-4.ezk. Bilbo. Telefono zenbakia, berriz, (94) 416 66 60.



URTARRILAREN 14AN SUTEA MENDIZORROTZ MENDIAN



Mendizorrotz mendian sutea izan zen joan den urtarrilaren 14an. Usurbildik kea bakarrik ikusi bazitekeen ere bertara hurbildutako jendeak Mendizorrotz puntan sua ikusteko aukera izan zuen. **Arratsaldeko 5.30ak aldera** hasi zen sutea, eta haize handia zebilenez bertan dauden antenen inguruan azkar zabaldu zen, beherago joan gabe. **Suhiltzaileek nahiko lan** izan zuten itzaltzeko. 8.00ak alderako guztia kontrolpean edukitzea lortu zuten **Oraindik ez da jakin zeintzuk izan ziren sutearen arrazoiak**. Hala ere **Noaua!** aldizkariak jakin ahal izan duenez sutea hasi ondoren hiru gazte ikusi zituzten korrika jeisten.

GOMA GAINEKO EUSKAL HERRIKO SOKATIRA TXAPELKETA USURBILEN

Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketako **Esaiok** izan genituen joan den urtarrilaren 18an **Oiardo Kiroldegian**. Goizeko 10.30etan hasi behar zuen saioak baina orduerdi beranduago hasi zen. Tiratzaileek askotan erretxina erabiltzen dute eskuetan eta zapatiletan. Oiardo kiroldegian, ordea, ezin da erabili.

Ikuskizun polita eskaini zuten Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako tiratzaileek 300 pertsona ingururen aurrean. 640 kilokoen artean **Urrestilla** eta **Beti Gaztek** lortu zuten garaipena. Lehen multzoan Urrestillakoak erraz nagusitu ziren, tiraldi guztietan garaipena lortuz. Bigarren **Areso** izan zen eta **Abadiño** hirugarren. Bigarren multzoan ere, **Beti Gaztek** ez zuen arazorik izan. Bigarren **Torrekolanda** izan zen eta hirugarren **Ñapurak** iparraldeko taldea. 680 kilokoetan Urrestilla nagusitu zen berriz ere. Aresokoek egin zuten bigarren eta Abadiño hirugarren.



LARRUA TRUK DISKOA GRABATZEN

Larrua Truk taldeak Aste Santurako beren lehen diskoa kalean izatea espero du. Horixe esan zigun behintzat **Haritz Harreguy** taldeko gitarristak. Urtarrilaren 15ean hasi zituzten grabaketa lanak **Elkar** estudioetan eta datozen hilabetee-tan grabaketa lanak aurrera eramango dituzte. **Haritz Harreguy** bera izango da produktorea eta **Oihuka** zigiluarekin aterako dute 12 kantuz osatutako lana.

JOSEBA UNANUE EPAITUA

Urtarrilaren 14ean **Joseba Unanue** herritarra boskarren aldiz epailearen aurretik pasa zen. 1995eko martxoan Lasarte-Oriako kale nagusian ertzaintza-



Udarregi ikastolako haurrak indartsu dabilta. Hainbat kiroletan parte hartzen dutela gauza jakina da, baina 6. eta 5. mailakoek emaitza ezin hobekak lortu dituzte eskubaloian. 10-12 urteko mutilak jokatzeko ari dira Donostialdeko txapelketako finala. Urtarrilaren 11an Oiarde kiroldegian jokatu zituzten finalerdietan Urrietako Egape taldeari nagusituz lortu zuten finalerako txartela. Joan den larunbatean, hilaren 18an, finaleko joaneko partidua jokatu zuten, eta bertan gazteak nagusi. 5. mailakoek 12-8 irabaztea lortu zuten. Zorionak guztioi!

rekin istiluak sortu ziren manifestazio baten ondoren. Paisanozko bi ertzainek adin txikiko gazte hau atxilotu zuten. Orain, epaiketan, ertzain batek harriak bota zituela dioen bitartean, besteak barrikada jarri zuela dio. Fiska-

lak urtebeteko gartzela zigorra eta aipatutako ertzain bakoitzari 25.000 pezetako indemnitazioa ordaintzea eskatzen du.

Astearteko epaiketaren ondoren, kausa epaiaren zain gelditu da.

SARI BAT J.M. AIZPURUARENTZAT

Urtarrilaren 10ean **CAF-Elhuyar** 1996 zientzia sariak banatu ziren. Euskarazko zientzia dibulgazio artikulua eta liburu onenak saritzen dira bertan. Edizio honetan, liburuen atalean, **Jesus Mari Aizpurua** kalezartarrek eta Jose Javier Graceneak aurkeztutako "**Diseinu drogak**" liburuak sari bat lortu zuen.

USURBIL S.T-ak IRABAZI EGIN ZUEN

Ba zen garaia!. Herrian asko eta asko itxaroten zegoen berria. **Usurbil Saskibaloi taldeak** senior ligako lehen garaipena lortu zuen joan den urtarrilaren 12an. **Oiarde** kiroldegian jokaturako partiduan 52-48 nagusitu ziren Oiarzungo Haurtzaro taldearen aurka. Ea noiz errepikatzen duten!



Odol emaleek Usurbilgo anbulategian zuten zita joan den **urtarrilaren 20an. 55 usurbildarrek eman zuten odola**, hauetatik **hiru berriak** zirelarik. Pertsona bakoitzari 6,4 litro ateratzen zaizkiola kontutan hartuta, 22 litro **odol bildu ziren Usurbilen**. Odola ematez gain analisiak ere egin ziren, hiru pertsonak egin zituzten analisiak. Ondoren otartekoa, ura edo ardoarekin, odola ateratzeko gaitzen den indarra berreskuratzeko.



Bi telefono kabina erre zituzten urtarrilaren 12an, igande goizean. Dirudienez goizeko 5.00ak aldera Kaleberriko parkean dagoen telefono kabinara eta udaletxe ondokora **bi koktel molotov** bota zituzten. Urtarrilaren 13an, gauerdian, **Kutxako kutxazain automatikoari** eman zioten **su** beste koktel molotov baten bidez. Hilaren 18an berriz, goizaldera Kutxak Kaleberri duen egoitzako **kristalak hautsi** eta erre zituzten.

KIROL KOPLA



**XABIER
PAGOLA**

Oraingo honetan, **Noaua!**-tik niri iritsi zait kirol kopla egiteko gonbidapena, Eman didaten aukera hau ni sartuta nagoen bi kirolen berri zuei emateko erabili nahi dut

Lehendabizi, futbola.

Aurtengo denboraldian Usurbil Futbol taldeak lau talde atera ditu aurrera. Regionalak, jubenilak, kadeteak... eta berrikuntza bezala nesken 2. erregionaleko taldea Neskak!! Orain duzue aukera futbol zelai haundian jolasteko, ez galdu zuen aukera. Baina lau talde hauek aurrera ateratzeko jendea behar da, eta guk hori behar dugu. Aurten inoiz baino usurbildar gehiago gabilta Harane futbol zelaian, eta laguntzatxo bat begi onez hartuko genuke. Beraz, futbolari lagundu nahi baldin badiozue, hementxe daukazue aukera.

Bigarren taldea Andatza KKE da. Taldean zortzi bat lagun gara eta hilero ekintza bat antolatzen dugu; mendi irteerak, ibilaldi neurtua, Andatza eguna... Animatu zaitetze parte hartzera! Gainera, hilero diapositiba emanaldi bat eskaintzen dugu eta oso interesgarriak izaten dira mendia gustoko dutenentzat.

Hauetz gain, Usurbilen kirol talde gehiago daude eta ziur jende faltan daudela kirol hori aurrera eramateko. Badakizu, beste batzuk kirola egin dezaten, edo zuk egin dezazun laguntzeko prest baldin bazaudete, lagundu ezazu ahal duzun mailan.

MARTIN MAIZ: "Sokatira oso gogorra da"

Urtarrilaren 19an Euskal Herriko Goma gaineko sokatira txapelketa-ko jardunaldi bat ospatu zen Usurbilgo Oiardo kiroldegian. Bertan Usurbildar batek parte hartu zuen Igeldo-Auzolan taldearekin, Martin Maizek. Sokatiran jardun ondoren berarekin hitzegiteko aukera izan genuen

Noiz eta nola sartu zinen sokatiraren mundu honetan?

Orain dela hiru urte izan zen. Ortzakako jaietan txapelketa bat antolatu zuten. Oriotarrak, aginagarrak eta Igeldokoak hartu genuen parte. Orduan, sokatirarekin jarraitzea erabaki genuen.

Orduan txapelketa hartan parte hartu eta ondoren entrenatzen hasi zineten.

Bai halaxe da. Hasieran bi Astigarragakoak ziren eta besteok Igeldokoak. Igeldon ez dago entrenatzeko toki egokirik, frontoia irekia baita, eta Astigarragako frontoira joaten hasi ginen entrenatzera. Orain ere egunero-egunero bertara joaten gara gaueko 21.00etan entrenatzeko.

Eta txapelketetan zer moduz?

Iaz aurten baino gutxiago entrenatu eta hobeto ibili ginen. Aurten taldeen maila altuagoa da, jendea ondo preparatu da, eta horregatik ez gabilta hain ondo. Aurreko urtean oso gutxi falta izan zitzaigun finalean sartzeko. Aurten berriz, irabaztea asko

kostatzen zaigu.

Sokatiran zer da garrantzitsuena?

Lehenik eta behin pisua. 560 kilokoetan aritzeko 70 kiloko media behar da, zortzi tiratzailer baitaude. Askotan bezperan ezer jan gabe egon ohi gara, eta sokatiran egin behar dugun egunean ere bai. Gero pisatu ondoren jan dezakezu. Beste batzuetan pisatzerakoan kiloz pasa egiten gara. Orduan zira jantzi eta korrika ibiltzen gara kilo horiek galdu arte.

Oso gogorra da orduan sokatira.

Bai, dudarik gabe. Pisu kon-tuez gain fisikoki ere asko izorratzen duen kirola da. Gerriak, zangarrak, giharrak...asko nekatzen dira. Sokatiran badi-rudi gehien sufritzen duen gorputzeko atala eskuak direla, baina ez da horrela. Ohitu egiten zara.

Eta hala ere jarraitu egiten duzu?

Bai, eta etorkizunean ere jarraitzeko asmoa dut



Joan den urtarrilaren 19an goma gaineko Euskal Herriko txapelketan parte hartu zuen Martin Maizek. Eskubitik lehenengoa dugu bera.

BUZTIN ZULO: 14 URTEZ BUZTINA LANTZEN

Badira 14 urte Buztin Zulo Keramika Taldearen atzean dabilzala, eta buztinarekin jolastea dute gustoko. Hasiera batean gehiago baziren ere, gaur egun Migel Anjel Goenaga, Xanti Illaramendi, Kami Vidal eta Jose Luis Cuerdok gustora ibiltzen dira ontzi, apaingarri eta eskulturak egiten.

1983. urte inguruan Andatza Kultur Elkarteak eskulangintza ikastaroa antolatu zuen Udala eta Diputazioaren laguntzaz. Jende asko hurbildu zen bertara, eta interesa ikusita, Buztin Zulo sortu zen. Hasiera batean 20 pertsona bildu ziren bertan. Gaur egun berriz lehen aipatutako kideak jarduten dute tornuari eta eskuei eragiten. Migel Anjel Goenagak azaldu digunez, "guretzat eskulangintza hobya da, nahi dugunean

etortzen gara gure lanak egitera. Bakoitzak gainera estilo desberdina du: batek tornuko piezak egiten ditu, besteak berriz apaingarriak, hurrenak eskulturak... denetik".

Inguratu nahi duenarentzat irekita dago Buztin Zulo. Zumarte Musika eskolako azpiko lokalera azaldu besterik ez du, eta hantxe aurkituko du artista izateko beharrezko guztia. Duela bospasei urte saiatu ziren ikastaroak antolatzen, baina jendearen erantzuna txarra izan zenez, ez dute

horrelako beste ezer antolatzeko asmorik.

Egin dituzten lanen artean duela bizpahiru urte egindako kaleetako plakak aurkitzen dira. Lan handia zutela ere aitortu digu Migel Anjelek, plaka bakoitzarekin bi edo hiru aste pasatu baitzuten. Honetaz gain, pasatu den urrian erakusketa antolatu zuten, eta arrakasta handiarekin gainera. Momentu honetan, beren proiektuetako bat frontoi atzean dagoen Zumetaren muralak dituen

hutsuneak konpontzea da. Frontoiko obrak amaitu baino lehenago egin beharko dute lana.

Hala ere, Buztin Zuloko kideek badute beste egiteko bat esku artean, baina oraingoz nahiago izan dute ixilpean gorde. Garaia iristean horretaz hitz egiteko aukera izango dugula espero dugu.



TXOKOALDEKO GAZTEEN BILTOKI



Gaur egun zortzikote bat biltzen da Akerra gazteetxean. Denbora bat geldirik

ere egon da pixka batean, baina 1995eko udaz geroztik, gazteetxeak bere martxa hartu du.

Bertako kide den Gorka Zubillagaren esanetan, "Txokoalden ez dago ez tabernarik ez ezer. Gazteok biltzeko toki baten beharra ikusten genuen. Udalarari eskaera egin zitzaion eta berriro zentral elektriko zaharrean Akerra ireki genuen".

Oraindik ez dute funtzionamendu handirik. Bilerak egin eta ekintzak mantxo ateratzen dira aurrera. Asier Iturraldeak azaldu digunez, "gauzak denon artean egiten ditugu, ateratzen diren heinean. Hori bai, nahiko lasai egiten ditugu gauzak. Zer

egin aukeratu lehenik, deiak egin, erantzunak jaso, kartelak atera... Badakigu Usurbulgo Gazte Asanbladak duen dinamika bezalakoa ezin dugula eduki, argi dago. Baina gure mailan ere ekintzak antolatu nahi ditugu".



Akerra berriro martxan dagoenetik, kontzertuak izan dira ekitaldi gehienak: Larrua Truk, Radio Crimen, Kaña Bi Kaña, OST...jadanik pasa dira Txokoaldetik.

Kontzertuen ildotik jarraitzeko asmoa badute ere, beste ekitaldi desberdinak egiteko nahia ere badute Akerrako gazteek.

Idoia Torregarai

URIBERRI BERRIKO TEILA-LABEA NOIZ ERABILTZEN ZUTEN EZIN ZEHAZTU

Usurbilgo udalak, urte hasierarekin batera, aurreten ere 1997ko egutegi txikiak atera ditu. Bertan, Aginagan dagoen Uriberri berriko teila-labea agertzen zaigu, Zuetako askori ezezaguna egingo zaizue 1995ean egindako aurkikuntza hau. Zer da Uriberri berriko teila-labea? Zertarako erabiltzen zen? Jarraian honelako galderei erantzungo diegu.

1995. urte arte Aginagan Teila-labe bat zegoenik ez zekien inork. Etxebizitza bat egiten hasi behar zutela eta, lurra kentzen hasi ziren eta ustekabean honen arrastoak aurkitu zituzten. Etxebizitza eraikitzeko lanak alde batera utzi eta Usurbilgo udala eta lurren jabea akordio batera iritsi ziren: teila-labe hau eraberritu eta jendeak ikusi ahal izateko bertan uztea erabaki zuten,

Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek teila-labe honen inguruan hainbat ikerketa egin dituzte. Lehenik noizkoa zen zehazten saiatu ziren, hau da, noiz funtzionatzen zuen ikertu zuten. Emaitzak eskasak izan ziren. Hasiera batean Urrizmendi baserriaren jabe goa zen orain teila-labea dagoen lekua. Baserri honen 1723 urtetik aurrerako herentzia idatziak aztertu ondoren ez dute aurkitu teila-labearen aipamenik. Horregatik, adituen ustez, XIV. mendetik XVII. mendera erabili zuten Uriberri



Hauxe da Aginagan aurkitutako Uriberri berriko teila-labea.

berriko teila-labea. Hala ere, zalantzak haundiak dira, datuak ez baitira oso segurak.

Zertarako erabiltzen zen?

Teila-labeetan eraikuntza lanetan erabiltzen ziren zeramika materialeak egiten ziren. Teilak, adreiluak, baldosak etab. hemen produzitzen zituzten. Oso jende gutxi behar zen honelako produkzio zentru bat aurrera eramateko, urte osoan zehar lan ezberdinak egiten baitziren. Neguan, lehengaia aukeratu, gehiengotan buztina, eta aire librean uzten zuten. Udaberrian lehengaiari ura botatzen zioten, masa egin eta hondarra, kuartzoa edo errautsa gaineratuz. Masa ondo prestatuta edukitzean, moldeatu eta sekatz

uzten zen, udaran prozesuaren fase garrantzitsuenari ekiteko, erreketara. Erreketa teila-labe hauetan egiten zen, azpian, zuloan, egurra jarri erretzen eta gainean egosi beharrekoa.

Hala ere, Aginagako teila-labe hau ez da usurbilen aurkitu den bakarra. Zubietan ere aurkitu zuten honelako eraikuntza bat, 1607. urtean erabiltzen zutela baieztatzen duten datuak badituztelarik. Aranzadi Zintzia Elkartearen ustez bi teila-labe hauek auzo hauek garai batean zuten autonomi maila haundiaren adierazgarri dira. Nahiz eta administratiboki eta ekonomikoki Usurbilen menpe egon, ezinbesteko zerbitzuak zituzten: teila-labea, errota, kaia...

Josu Aranberri



Ekaitze

Bideo eta Argazkiak

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun



TXIRIBOGA

TABERNA

pintxoak eta bokatak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

Herriko txokoetatik zehar ibiltzea gustatzen zaigu, bitxikeria berriak ezagutuz, ezkutuko lekuak bisitatuz... Oraingo honetan, Zubietako plazan geldituta, **bolatokira** hurbildu gara. Boloak hartu eta birlak botatzera! Baina, ba al dakizue zenbat **birla** diren boloekin bota behar ditugunak?

Asmatzaileen artean **Sekaña** jabetxean afari bat zozketa-tuko dugu bi lagunentzat. Animo eta bota boloak beldurrik gabe!



Askok gogoratzen duzue, bai, Troia aldean zegoen **Txaparrengo tren geltokia**. Garai batean, Kalezar eta Zubietako baserriarrak hor hartzen zuten tren Donostiara joateko. Eta bueltakoan, porru, esne eta gainontzeko produktuen salmentarekin ateratako txanponak kontatzen etortzen omen ziren. Etxekoandreak ziren, nonbait gehien ibiltzen zirenak. Eta horregatik, **atsotrena** ere deitzen omen zitzaion.

Atsotren honen kontura, **Maria Pilar Maizek Patri** jabetxean afari goxo bat egiteko aukera izango du. Zorionak **Maria Pilar!**



Urteko lehen bazkaria **Arantxa Astiasunzarrari** egokitu zitzaion. Baina, sukalde usainaren atzetik jende gehiago ere hurbildu da **Etxebeste** jabetxera. Batzuk jateko prest, eta besteak zerbitzeko pronto.

komikia



Nagore Leoz



TABERNA



Pintxo bereziak
eta
giro aparta

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42

URTARRILAK 25 Larunbata

- Txalaparta ikasteko biderik seguru eta azkarrena delako, eta **aurtengo ikastaroaren berri** eman nahi dizuelako, **PIPIYA Txalaparta eskolak Aitzaga Elkartean** egingo den **hamabitakora** gonbidatzen zaituzte.
- Kadete mailako **eskubalo** **partidua** (N): **Usurbil K.E.- Zarautz**. Arratsaldeko **16.30**etan.
- Jubenil mailako **eskubalo** **partidua** (N): **Usurbil K.E.- Pulpo**. Arratsaldeko **18.00**etan.
- Kadete mailako **eskubalo** **partidua** (M): **Basauri-Usurbil K.E.**
- Jubenil mailako **eskubalo** **partidua** (M): **Basauri-Usurbil K.E.**
- Bigarren nazionaleko **eskubalo** **partidua** (M):

Urdaneta- Usurbil K.E.

- Futbol aretoko partidua (M): **Antxeta taldea- Cafe Boulevard**.

URTARRILAK 26 Igandea

- **Andatza K.E.k** antolatuta, **Gorramendira (Baztan)** irteera antolatu dute. Frontoi atzean, goizeko **7.00**etan.
- **Saskibalo** **partidua senior mailan** (M): **Usurbil S.T.- S.T.L. Uztapide**. Goizeko **11.00**etan
- **Futbol partidua** (N): **Bergara- Usurbil**.
- Regional mailako **futbol partidua** (M): **Usurbil-Intxaurren**.
- Jubenil mailako **futbol partidua** (M): **Antoniano-Usurbil**.
- Kadete mailako **futbol partidua** (M): **Usurbil- San Ignacio**.



URTARRILAK 27 Astelehena

- **"Yoga eta osasuna"** argazki **emanaldia** ikusteko aukera izango dugu. Bertan, osasuna, erlajazioa, heriotza, alaitasuna, orekaz... hitz egingo da. Hizlaria: Juan Jose Urtzeta "Vasishtha". **Oiaro kiroldegian**, arratsaldeko **19.30**etan.
- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

URTARRILAK 28 Asteartea

- **Bota Punttuba bertso eskolak** antolatuta, gaur, arratsaldeko **20.00**etan Santa Ageda bezperako abestiak entzaiatzeko aukera izango dugu. Udarregi zaharrean.
- **Dietetika eta Elikadurari buruzko hitzaldia** antolatu du Guraso Eskolak. Hizlaria **Gorka Aierbe** izango da eta dieta orekatua eta elikadura adolezentsian izango dira gaiak. **Udarregi Zaharrean**, arratsaldeko **18.00**etan. Bihar, hilak 29, ordu berean bigarren hitzaldia emango du.

URTARRILAK 29 Asteazkena

- Usurbilgo **Herri Batasunak** 1997 **udal aurrekontuaren** aurrerapen bat **aurkeztuko du** gaur. Udarregi zaharrean, arratsaldeko **7.30**etan.



Hika Antzerki Taldeak Bernardo Atxagaren "Henry Bengoa Inventarium" antzezlanaren aurkeztuko du **Udarregi ikastolan** urtarrilaren **26**, igandean, arratsaldeko **19.30**etan. Sarrera: 300 pezeta.

MENEGAIN IMMOBILIARIA

Etxebizitzak, lokalak eta garajeak

Palazio, 28-1.
Donostia 20.008

Tlf. 21 79 86



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55

enda

URTARRILAK 31 Ostirala

- **SENIDEAK**en manifestazioa arratsaldeko **20.00**etan.

OTSAILAK 1 Larunbata

- Kadete mailako **eskubalo**i **partidua** (N): **Urnietako-Usurbil K.E.**
- Jubenil mailako **eskubalo**i **partidua** (N): **Bidebieta-Usurbil K.E.**
- Kadete mailako **eskubalo**i **partidua** (M): **Usurbil K.E-Bidasoa.** Arratsaldeko **16.00**etan.
- Jubenil mailako **eskubalo**i **partidua** (M): **Usurbil K.E-Bidasoa.** Arratsaldeko **17.30**etan.
- Bigarren nazionaleko **esku**-**baloi partidua** (M): **Usurbil K.E- Gure Auzune.** Arratsaldeko **19.00**etan.

OTSAILAK 2 Igandea

- **Senior mailako Saskibalo**i **partidua** Joxean Gaska kiroldegian (M): **Kevia**n **Sport- Usurbil S.T.**
- Bigarren jubenil mailako **fut**-**bol partidua** Harane futbol zelaian (M): **Usurbil- Ilintxa.**
- Regional mailako **futbol par**-**tidua** (M): **Vasconia- Usurbil F. T.**



Hilabete bakoitzeko azken ostiralean egiten den bezala, **urta**-**rrilaren 31**ean ere **SENIDEAK**ek manifestazioa egingo du arratsaldeko **20.00**etan.

- Kadete mailako **futbol par**-**tidua** (M): **Aldapeta-Usurbil.**

OTSAILAK 3 Astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa errotandan. Arratsaldeko **20.00**etan.

OTSAILAK 4 Asteartea

- **Bota Punttuba bertso esko**-**larekin batera, Santa Ageda bezperan abesten ateratzeko** aukera izango dugu. Arratsaldeko **20.00**etan plazatik irten eta kalez-kale ibiliko da base-rritarrez jantzita.

OHARRAK

- ✓ **Guraso eskolak helduen**-**tzako Inglesa ikastaroa** antolatu du ezer ez dakitenezat. **Otsailaren 3an** hasiko da ikastaroa eta **16 ordu** iraungo du. Klaseak **Udarregi Zahar**ean eman-go dira: astean zehar, **astelehena** eta **ostegune**-

tan, 15.00etatik **16.30**etara. **Larunbatetan, 10.00**etatik **12.00**etara. Matrikulak **9000** pezeta balio du. Interesatuok deitu telefono honetara: **37 21 24** (M^o Jesus Astigarraga).

- ✓ **Masaiaren oinarrizko ikas**-**taroa Oiardo kiroldegian.** Argibide gehiago eta izena emateko, deitu telefono honetara: **37 24 98.**
- ✓ **AEK/Euskaltegiak** matrikulatzeko epea ireki du. Nahi duenak deitu **372001** telefonora.

Otsailaren 8an ihauteri festa **Usurbilen.** Aurtengo honetan **Usurbil** zirkoa bihurtuko da. Ez itxaron azken momentu arte, hasi mozorroak eta ikuskizunak prestatzen. Ez ahaztu bertan izango ditugula: **Orioko pantera beltzak, Aiako zezena, Lasarteko pailazoak, enkantador de serpintesa, Lertxundini anai akrobatak eta malabar, malabar...**

BAZKIDIE TXARTEEA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

H A M A B O S T E K A R I A
Noaua!

Txotx denboraldiari hasiera emateko, sagardo bikainak Usurbilen



Araeta



Urteosoan txotxetik bertako sagardoa.
Egunerozabalik. Lekulasaieta aparta.

Zubieta
Tlf. 36 20 49



ilLunbe



Txotx denboraldia irekiberria.
Aurtengo sagardoa dastagai.

Txoko alde
Tlf. 37 16 49



iruin



Bertako sagardo berria dastagai.
Sagardotegiko giroa eta menua.

Zubieta
Tlf. 36 12 29



saizar



Hemendik aurrera 45 kupeletako sagardoa
dastagaidenboraldiosoan.

Kalezar
Tlf. 36 22 28



urDAiRA



Egunero irekita, igandegauetanez.
Bertako sagardo berri probatzeko aukera.

Aginaga
Tlf. 37 26 91



A GiNA GA



Egunero irekia astelehenetanez.
Menu aukera zabala, sagardotegiko abarne.

Aginaga
Tlf. 36 67 10